

## Merkatuen segmentazioa

Ondo dakigun bezala, ekonomiaren eragileak enpresak, familiak eta elkarte publikoak/estatua dira. Gure kasuan, enpresa pribatu bat gara non familientzako produktuak ekoizten ditugun.

Gure produktua adin eta sexu guztietako jendearentzat dago zuzenduta. Adibidez, gazteen kasuan, klasera joan aurretik arropa aukeratzeko eta janzteko prozesua azkartzen laguntzen du; helduen kasuan, berriz, lanera joateko arropa aproposa aukeratzeko laguntzen du eta azkenik, zailtasunak dituzten hirugarren adineko pertsonen kasuan, aholkuak ematen ditu eguraldiaren arabera zer arropa mota den egokia jakiteko. Esate baterako, egun euritsu batean aterkia hartu behar dutela gogorarazten die.

Arropa janztearen prozesua azkartzea da gure bezeroen beharra eta hori asetzen dugu. Enpresa berritzailea garenez, ez dugu lehiakide zuzenik, beraz, besteekiko lehia-abantaila dugu. Gure lehia bakarra ohiko armairuak ekoizten dituzten enpresekin izango litzateke.



iCloset-ak egoera hau saihesten laguntzen du.